

BASERRIYAN



Egur igarren suak
labia bezela,
baserri sukaldia
epeltzen zubela,
suaren arrimuan
aitona zimela,
ikusten da gozo ta
lasai daguela.
Belaun baten gañian
illoba dubela
eta bestian berriz
buruko chapela,
pipa kirtzen moch bati
tiratzen diyola,
biyak su bazterrian
kontentu daudela.

Illobari farchua
gozoz dariyola
eta gero lepotik
eldutzen ziyola
—ziyon—tira aitona
oranchen berela,
kontu bat konta beza
gaur biyok bestela
luak artuko gaitu
uste ezdegula.
Eta beste itz gabe

aitona zimela,
illobari kontatzen
asi zan onela.

—Gizon zarcho bat, eskalia zan,
negu izoztu gogor beltzean
deitzen zubena, boza motelez
baserri churi baten atean;
arto puška bat arren emango
naute, esanaz bere artean.
Morroi gazte bat atsegintsua
arren deyerla laister aurrean
jarri ta ziyon:—Eche nausiya
onera dator zeindan galdean.—
Ikusterako nausiyak diyo:
—¿Best'eskalea? ezta oraindik
denbora asko alper aundi bat
bigaldu dala ate ondotik.
¡Au da guretzat lotsakizuna!
—¡Jauna baraurik nago oraindik;
zarra naiz eta lantegirako
eztet baliyo, eztet indarririk;
jauna gosiak pasia nauka,
arto puska bat bekar berenik!
—¿Eta eskean ibillitzeko
zer egiñ izan dezu gazterik?
¿zartutzerako ez altzen duben
ateratutzen iñoiz konturik?

—Bear aña lan nik egiteko sekula ezdet izan gogorik; alperra nintzan, ezdet ukatzen ala ez nuben austen ezurrik; ori izan zan nere galera, jauna ezdet nai esan gezurrik—
 —¿Ez aldakizu ¡doakabea! gizon alperra gure lurrian egoten dala urrindua¹ ta egoten dala beti oinpean?—
 —¡Onela sartu nintzan mundura jauna neretzat suerte charrean! lana eginda bizi nai arren, bizi nai arren zerbait nekean, itzul egiten niyon ta ala lanikan egiñ eznezakean. Beraren gandik gorrotasunez bizi nai nuben chit apartean, ez nintzan neke gogor zalea indar sendoak nitubenean; nagiyak jo ta etzaten nintzan belardichoan, ondar che-chean...
 —Sosegua ta pake santua arkitutzen da beti echean eta gizonen premisiya da lan egitea bizi artean.
 ¿Ez aldakizu ibar negarti abetan chiki nola goitua bearrak beti dena daukala bere azpiyan menderatua? jakintsuna ta jakin gabea gazte sendoa, gizon zartua errespetuan onratzen dute; deitzen diyote bear santua eta beraren aurrean denak umill makurtzen dute burua.

(1) Despreciado.

¿Ez aldakizu, Jaunak eskutik laja zinduben ume gaistua zure oinpean nola lantzen dan neke aundiyan chingurrichua? Gari aleak echeratutzen igarotzen du uda osua, negu beltzean gozatu dezan uda guziko lan nekosua.... jeta zer da zuk egiñ dezuna?
 —¡Barkatu beza!

—¡Gizagaisua!!

—Jauna senti det damutsuna; nere pobrezaz kupida bedi; barka bezayo biyotz negarrez eskatzen diyon arlote oni—
 —¿Barkatu zure alperkeriyak orla bizitu izan danari? ¡kendu zaitea!—eta atetik kanporatu du gizon zar ori, zugazti baten oñean lotsaz zizpiriyoka zana erori.

.
 Biyotz aundiko andre pobre bat laisterka joan da lagundutzeroa, chit amoriyoz galde egiñaz
 —¿Zeinda beorri? ¡au zein ote da!
 —Ni izandu naiz gaistakeriyaz gazte nintzala oker bidera lanen itzuli, egiñ bearrez joaten nintzana far egitera, oraiñ gatzigu merezitua allegatu zait lurperatzera.
 —Alchatu bedi nere laguntzan; alchatu bedi gizarajua!
 —Utzi nazazu bertan ill naidet; nere asnasa aitzen dijua.
 —Entzun biardit zergatik nere boza dan zeru goyetakua

eta aña ona nola dan denak
 maitatzen degun Jaun zerukua,
 damutzen diran danari goitik
 bigaltzen diyo barkaziya.
 Betor eta nik ateratuko
 diyot pechuban daukarren pena,
 au da kristribak lur triste ontan
 fedetsu egiñ biar dubena. —
 Eta andre on biyoz aundiko
 itz gozoz ala poztu zubena,
 bi malko ale sekatu eta
 erakutsiyaz biyotz barrena,
 chit borondatez an eman ziyon
 chestuan zuben arto beltz dena

Eztaikit zer bildu zan
 aurraren burura,
 entzun ta gelditzeko

alako modura,
 ikusten zitzayola
 pena ta tristura,
 nola barrentzen ziran
 beraren pechura.
 Jarri da oartutzen
 bere ingurura,
 ama eseritzen dan
 betiko lekura,
 galdubaz lenagoko
 penaren ichura
 eta etorririkan
 gaisua kontura,
 aitona laztandubaz
 begira zerura
 —ziyon—¡Nere ama zan
 laguntzalle ura!

V. IRAOLA.

PESQUERÍAS

CARTAS A «UN OFICIAL BASCONGADO»¹

De D. Segismundo Moret y Prendergast

Sr. D.....

Madrid, 4 de Febrero de 1890.

Muy Sr. mío: Recibí su atenta del 23 de Enero y siento no tener suficiente influencia en los centros militares para utilizarla en su favor. No obstante, si el Sr. General Cassola apoya la pretensión de V., me pondré de acuerdo con él para hacer en su obsequio lo que pueda.

Es de V. afmo. etc., etc.

*

(1) Véase página 368 del tomo actual.